



Gorka ETXEBARRIA DUEÑAS
Historialaria

Mutiltasunaren zama?

Harrituta geratzen nintzen hasieran baxenabartar lagunekin elkartzen nintzenean eta ostatu batean sartzean, bertakoen ahotsen gizontasunarekin. «Zein ahots grabeak», pentsatzen nuen, «genetikoa ote da? Hegoaldeko gizonak ez dute halako tonurik erabiltzen normalean». Nolabait, ahotsaren tonuak ere, beste mila gauzaren artean, gizontasuna markatzen baitu. Aukera izan nuen aurrekoan Euskadi Irratiko Amarauna saioan, Mikel Zumetarekin batera (ohore Bilyncheko kideei) “Adolescence” telesaila komentatzeko. Solasaldia bukatzen ari zenean, Mikelek aipatu zuen gaztetxoek “maskulinitate positiboak!” ere ezagutzeko beharra garrantzizkoa zela, eta ahoa bete hortz geratu nintzen, hari horri tira egitera nindoala gure tarte bukatu baitzen.

Hitz egin nahi nuen nik “maskulinitate hauskorra” dela-koari buruz. Baina ez esateko maskulinitate mota bat hauskorra izan daitekeela eta badaudela maskulinitate eredu alternatiboak, positiboak ere. Iruditzen baitzait maskulinitatea bera dela hauskorra dena, bere osotasunean. Irakurri dut antropologoek “maskulinitate prekarioa” ere erabiltzen dutela, azaldu nahirik maskulinitatea lortzen zaila den estatusa dela, baina erraz gal daitekeela, etengabe ihes egiten doan zerbait bezala. Irakasle lagun batek, honi buruz askotan hitz egiten dugunean, esaten dit berak mutikoak autobuseko barrari helduta doazela imajinatzeko dituela, eta barratik uneren batean askatzen denak bere maskulinitatea gal dezakeela sentitzen duela. Hau da, beldur eta antsietate etengabea sortzen duela maskulinitateak berak, edo nork gal baitezake uneren batean eta horrek eragiten baitie ezinegona eta urduritasuna.

Izan ere, iruditzen zait telesaila horri buruzkoa ere badela, batez ere aitaren figurari erreparatzen badiogu. Etengabe du beldurra gauzak ondo ez egiteko,

egoeraren kontrola galtzeko eta gaizki erreakzionatzeko. Stephen Grahamek maisuki antzezten du etengabeko tentsioan dagoen gizona, edo agian oso barneratuta dauzkan keinuak dira; izan ere bikain transmititu du sentsazio hori hainbat telesailetan (“This is England”, “Peaky Blinders”, “Boardwalk Empire”...). Ihes egiten duen maskulinitate hori, etengabe haren atzetik segika jartzen gaituen hori, etengabeko performance hori da nekea eta zama suposatzen duena, nire ustez. Hori da frustrazioa eragiten duena eta, hain zuzen ere, horixe da gizonekin landu beharrekoa.

Gizontasunaren funtsa haren iheskortasuna dela ulertzea lehen pausoa izan daiteke tentsio etengabe horretatik ateratzeko. Haur izatetik mutiko eta gizon gazte izaterako bide horretan nabaritzen baita gehien azken hamarkadako feminismoaren aurrerapausoari erreakzioa. Ez da gaztetxoek sortu duten zerbait, etxean modu ia inkontzientean eguneroko keinu eta mezuekin jaso dutena da (eta etxe askotan modu esplizituan ere bai, noski), Cristina Fallarasek idatzi duen bezala: «Errua ez da manosferarena, errua zure aitarena da». Hala ere, egia da frogatuta dagoela sare sozialetako

algoritmoak eskuin muturreko pertsonak ekartzen dituela etengabe gure mugikorretara eta eskuin muturraren ideologian funtsezkoa dela maskulinitate tradizional imajinario bat, beti galbidean dagoena. Horixe azpimarratu du, hain zuzen ere, Andrea Proenzak, “Adolescence, maskulinitate erreakzionarioaren eraikuntza” artikuluan.

Kontuak kontu, “Adolescence” telesailak nerabee-kiko helduen inkomunikazioa ere ezartzen du lehen lerroan, eta komunikazio zubiak eraikitze aldera, mutikoekin hitz egin beharra dago, sentitzen duten etengabeko zama hori arintzeko aukera dutela helarazi behar zaie, gehiegi nekatu eta erantzunik simple eta okerre-na hautatu baino lehen. •



«Adolescence» telesailako fotograma bat. NETFLIX